

## Bero-kolpea

### Enpresarentzako informazioa

Udarekin batera, tenperatura altuak iristen dira, eta gehiegizko beroak langileengan eragina izan dezake. Gorputzak berora egokitzeko berezko mekanismoak ditu, baina, tenperatura oso altua denean, bero-kolpe bat gerta daiteke, eta ondorio larri edo oso larriak eragin osasunerako.

Enpresako zuzendaritzak hainbat neurri hartu beharko ditu bero-kolpearen arriskua saihesteko.


### Maiatzaren 11ko 4/2023 ERREGE LEGE-DEKRETUAK

apirilaren 14ko 486/97 Errege Dekretua aldatzen du, lantokietako segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena, eta aire zabaleko lanetako lan-baldintzei buruzko xedapen gehigarri berri bat jasotzen du:

- 1. Aire zabaleko lanetan neurri egokiak** hartu beharko dira langileak fenomeno meteorologiko gogorrei loturiko edozein arriskuren aurrean babesteko, muturreko tenperaturak barne.
- 2. Aurreko atalean aipatzen diren neurriak laneko arriskuen ebaluaziotik** ondorioztatuko dira, eta, aipatutako fenomenoez gain, kontuan hartu beharko dituzte egiten den lanaren ezaugarriak eta langilearen ezaugarri pertsonalak edo jakina den egoera biologikoa.

Prebentzio-neurrien artean egongo dira, besteak beste, **lan jakin batzuk debekatzea fenomeno meteorologiko gogorrek gertatzen diren orduetan**, ezin bada beste modu batera bermatu langilea behar bezala babestuta egongo dela.

- 3. Espainiako Meteorologia Agentziak (AEMET) edo, hala badagokio, erkidegoko organoak, maila laranja edo gorriko fenomeno meteorologiko gogorren abisua** ematen badu, eta aipatutako prebentzio-neurriek ez badute bermatzen langileen babesa, nahitaez egokitu beharko dira lan-baldintzak, aurreikusitako lanaldiaren jardun-orduak murriztea edo aldatzea barne.





## Bero-kolpea

### Enpresarentzako informazioa

4. Xedapen gehigarri hori **lantoki guztietan** izango da aplikatzekoa, 486/97 Errege Dekretuaren 1.2. artikuluko salbuespenak barne hartuz, hots: enpresaz edo lantokiaz kanpo erabiltzen diren garraio-bideak,aldi baterako eraikuntza-obra edo obra mugikorrak, erauzketa-industriak, arrantzarako itsasontziak, soroak, basoak.

### Nola saihestu? Enpresarentzako gomendioak

- **Lana antolatu**, ordu-tegiak egokitu:
  - **Txandak** antolatu, ahal denetan, eraginaren denbora edo intentsitatea murrizteko.
  - Eragin txikiena jasaten duten lanpostuekin **txandaketak** aurreikusi.
  - **Lan astunenak bero gutxiago egiten duen orduetarako** planifikatu.
  - **Bakarka lan egitea saihestu**.
  - Lan fisikoa murriztu, **laguntza mekanikoak** erabiliz.
  - **Atsedenaldiak ezarri maiz**; zenbat eta tenperatura altuagoa, atsedenaldiak sarriago eta luzeago egin.
- Langilearen babeserako baliabide egokiak eskaini eta haien **erabilerari buruz sentsibilizatu**:
  - **Atsedeen hartzeko toki freskoak**, estaliak edo itzaltsuak.
  - **Hidratazioa** (ur freskoa eta/edo edari isotonikoak eskuragarri izatea).
  - **Jantzia** (arropa freskoa, biserak, txapelak).
  - **Eguzkitik babesteko krema**.
- **Informazioa/prestakuntza**:
  - Langileei beroari loturiko arriskuei, ondorioei eta prebentzio-neurriei buruzko **informazioa eta prestakuntza** eskaintzea. *(ikus langileentzako informazio-fitxa)*
  - Muturreko bero-baldintzetara **aklimatatzeari** buruzko prestakuntza-programak ezartzea.
- **Osasunaren zaintza** sustatzea.

